



'HITZALEAN', HITZA GUZTIEK EGINIKO LIBURUA

Eskualdeko bost idazlek hartu dute parte bilduma honetan; Durangoko Azokan aurkeztuko dute hitzek >2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-12-03

VIURTEA 1.575 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA


WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JUAN KRUZ IGERABIDE IDAZLEA

«Emozioen eta inkontzientearen mundua sinbolizatzen dute laminek»

ADUNA 'Amilma. Laminen istorioak' liburua kaleratu du idazleak; laminen buruzko herri tradizioa jaso du bertan

MARRAZKIAK Elena Odriozolak egin ditu; «ipuin paralelo bat egiten du, oso aberasgarria da», dio Igerabidek >7



I. GARCIA



La picara locuela taldearen *Juego de polichinelas* emanaldia. I. TERRADILLOS

Gaur Espainiakoak, Argentinakoak eta Thailandiakoak

TOLOSA Teknika eta estilo anitzekoak izango dira ikusgai Titirijairen baitan, herriko hiru gunetan >3

Tolosa
GOURMET

www.tolosagourmet.com

Abendua 5, 6, 7, 8
Tolosa
Festa

goya. cárnica
EUSKADI
TOLOGAZOFE

'Hitzalean' liburua argitaratu dute Hitzek, 32 idazleren lanekin

Kultura » Udan HITZA egunkarietan argitaratutako narrazioak urtero liburu batean biltzea da denen artean abiarazi duten bilduma berriaren asmoa.

ERREDAKZIOA

Udaberrian idazleei proposamena egin, udan HITZA bakoitzak dagokion eskualdeko edo zonaldeko idazleen lanak egunkarian argitaratu, eta udazkenean narrazio horiek guztiak liburu bakar batean bildu. Hori da aurten HITZA denen artean abian jarritako *Hitzalean* bildumaren asmoa.

Dagoeneko kalean den lehen liburua, beraz, bilduma baten lehen emaitza da, baina urtez urte fruitu berriak emateko asmoarekin sortu da *Hitzalean*. Iban Arregi da liburua argitaratzeaz arduratu den Bertako Hedabideen zuzendaria, eta bere hitzetan «lehen uzta da aurtengoa», baina «ez da azkena izango».

Lehen liburua, 32 idazleren lanekin

Udaberrian zein udan HITZA bakoitzak dagokion eskualdeko idazleei eskatutako narrazio guztiak bilduta, 32 idazleren lanek osatzen dute lehen sorta hau.

UROLA KOSTAKO HITZAK, Nagore Etxabe, Imanol Azkue, J.M. Olaizola *Txiliku*, Uxue Alberdi eta Kepa Urbietaren narrazioak argitaratu zituen duela zenbait aste.

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAK, berriz, Yolanda Larreategi, Joxemari Urteaga, Kirmen Uri-



Hitzek erakusmahia izango dute aurten ere Durangoko Azokan, eta bertan izango da salgai 'Hitzalean'. GARI BERSALUZE

be eta Jon Fernandezaren narrazioak.

IRUTXULOKO HITZAK, Felipe Juaristi, Harkaitz Cano, Xabier Etxaniz Rojo, Dorleta Urretabizkaia eta Lorena Orozkorenak.

BUSTURIALDEKO HITZAK, Edorta Jimenez, Karlos Gorrindo, Alaine Agirre, Asel Luzarraga eta Joan Aldamizetxebarriaren narrazioak.

OARSOALDEKO HITZAK, Alai Martin, Lander Garro eta Jon Martinen lanak.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, berriz, Arantxa Iturbe, Joxemari Iturralde, Karlos Linazasoro, Mikel Olanio eta Juan Kruz Igerabiderena.

Azkenik, GOIERRIKO HITZAK, Izaskun Jauregi, Joxan Ormazabal, Patxi Zubizarreta, Tere Irastortza eta Iñaki Mendiguren

narrazioak argitaratu ditu, azken asteotan.

Guztira, bada, 32 idazle. Asko sari handiak eta irakurleen babesa irabazitakoak dira, Harkaitz Cano, Patxi Zubizarreta, Arantxa Iturbe, Joxemari Iturralde, Juan Kruz Igerabide, Txiliku, Kirmen Uribe eta beste hainbat bezala.

Beste zenbait, berriz, maila apalagoa lehiaketak irabazitakoak eta oraindik libururik argitaratu gabeko idazleak dira, baina etorkizunean euskal literaturan bidea egiteko gogoia dutenak: Alaine Agirre, Nagore Etxabe, Lorena Orozko edota Dorleta Urretabizkaia, zenbait aipatzearen.

Guztiak, dagokien HITZAREN eskualdearekin lotura dute. Gehienek eskualde horretan sortutakoak direlako, edota bertan bizi dire-

lako gaur egun, eta badira beste nonbaitekoak izan arren eskualde horretan uda edota urte sasoiaren bat igarotzen dutenak ere.

HITZAREN HARPIDEDUNEK, 3 euro merkeago

Liburuaren salmenta prezioa 15 euro izango da. HITZAREN harpidedunek, ordea, 3 euro merkeago izango dute liburua eskuratzeko aukera, 12 eurotan.

Durangoko Azokan Hitzek izango duten erakusmahia eta Hitzen egoitzetan soilik izango da salgai liburua.

Durangoko Azokan, hiru euroko beherapena lortzeko harpidedun txartela erakustea beharrezkoa izango da. Hitzen egoitzetan, berriz, harpidedun zenbakia ematearekin nahikoa izango da.

» LIBURUA



- **Izenburua.** 'Hitzalean'.
- **Argitaratzailea.** Bertako Hedabideak, 2008.
- **Orrialdeak.** 278 orrialde.
- **Narrazioen gaia.** Uda.
- **Prezioa.** 15 euro.
- **HITZAREN harpidedunek:** 12 euro.
- **Salmenta puntuak.** HITZAREN egoitzak eta Durangoko Azoka.

Egileak

- Alaine Agirre.
- Uxue Alberdi.
- Joan Aldamizetxebarria.
- Imanol Azkue.
- Harkaitz Cano.
- Nagore Etxabe.
- Xabier Etxaniz Rojo.
- Jon Fernandez.
- Lander Garro.
- Karlos Gorrindo.
- Juan Kruz Igerabide.
- Tere Irastortza.
- Arantxa Iturbe.
- Joxemari Iturralde.
- Izaskun Jauregi.
- Edorta Jimenez.
- Felipe Juaristi.
- Yolanda Larreategi.
- Karlos Linazasoro.
- Asel Luzarraga.
- Mikiel Martin.
- Jon Martin.
- Iñaki Mendiguren.
- J.M. Olaizola, *Txiliku*.
- Mikel Olanio.
- Joxan Ormazabal.
- Lorena Orozko.
- Kepa Urbiet.
- Kirmen Uribe.
- Dorleta Urretabizkaia.
- Joxemari Urteaga.
- Patxi Zubizarreta.

Ohitura onak berreskuratuz

» Iritzia

Iban Arregi
Bertako Hedabideetako zuzendaria

Saso batean, udan narrazioak argitaratzea urteroko ohitura zuen orduan euskarazko egunkari bakarra zenak. Narrazio haiek gero liburuetan ere bildu izan zituen zenbait urtez, upelean ontzen den ardoaren antzera, egunkariaren egunerokotasunari ihes egin eta apalategietan ondu ahal izateko.

Ohitura hura berreskuratzea opari ederra iruditu zaigu literaturara atsegin dutenentzat, eta HITZA egunkariak bat egin dute uda ho-

netan narrazioak argitaratu eta udazkenean guztiak liburu batean bildzeko asmoarekin. *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak*, *Busturialdeko Hitzak*, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak*, *Irutxuloko Hitzak*, *Goierriko Hitzak*, *Urola Kostako Hitzak* eta *Oarsoaldeko Hitzak*, beraz, bakoitzak dagokion eskualdeko zenbait idazleri gonbidapena egin eta uztailetik aurrera astean behin narrazioak argitaratzeari ekin zioten.

Orain, guztiak batera bildu ditugu *Hitzalean* bildumako lehen liburu honetan. HITZA baten irakurleak gainerako Hitzetan argitaratu diren narrazioak ere gozatzeko

aukera izango du honela, eta oraindik HITZARIK ezagutzen ez duen irakurleak, berriz, urtero hainbat idazleren lanekin osatutako bilduma berria izango du eskura. Hamaita idazle, hainbat narrazio eta literaturaz betetako dozenaka orrialde. Udan sortutakoak guztiak, HITZAN eta itzalean irakurtzeko. Udazkenean ontzen jarritakoak, bilduma berri honetan.

Ez dago esan beharrik ekimen hau abiaraztea ezinezkoa litzatekeela bidaide izan ditugun egunkari eta idazleen laguntzarik gabe. Mila esker guztiak.

Lehen uzta da aurtengoa. Ez da azkena izango.

HITZA, AURTEN ERE DURANGOKO AZOKAN

Aste honetan zabalduko ditu atek Durangoko Liburu eta Disko Azokak, eta bigarren urtez HITZA egunkariak erakusmahia izango dute bertan.

Iaz, Hitzek egindako lanak erakustez gain, LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAK argitaratutako *Ametsarako Hitzak* liburua izan zen salgai. Aurten, 32 idazleren narrazioekin osatutako Hitzalean liburua gain, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eta *Galtzaundi* aldizkariak argitaratu berri duten liburu mamitsua ere izango da eskuragai: *1936ko Gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*.

Joxemi Saizar (Tolosa, 1961) eta Mikel Errazkin (Anoeta, 1976) dira liburuaren egileak. Lehena TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN zuzendaria izan zen hainbat urtez, eta 1936ko Gerraren urteurrena zela-eta duela bi urte hasi zen egunkari horretan argitaratzeko elkarrizketak egiten. Elkarrizketa horiek dira liburu honen ardatzetako bat.

Bestea, Aranzadi Zientzia Elkarteak kide Mikel Errazkinek egindako lana da. Dokumentazio lana egin eta lekukotzak bildu ditu batez ere, Aranzadi elkartearekin egiten ari zen lana baliatuz. Saizarren eta Errazkinen lana uztartuta, Tolosaldean eta Leitzaldean memoria historikoa berreskuratuzko ezinbesteko liburua argitaratu dute HITZAK eta Galtzaundi. Egunotan ari dira aurkezpen ekitaldiak egiten, eta Durangoko Azokan ere izango da salgai, 18 eurotan (12 eurotan HITZAREN harpidedunentzat).



Irabazleak garaikurrekin. HITZA

Migel Mari Baroja garaile, Tolosako Xake Aktiboko Txapelketan

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Tolosako Xake Aktiboko Txapelketa jokatu zuten Amarozko auzo lokaletan. Txapelketa bost txandako suitzar sistemabidez antolatu zen, partida bakoitzeko jokalaririk bakoitzak hamabost minutu zituelarik. Migel Mari Baroja izan zen Txapelketaren garailea.

Xake azkarrean bost minutura ohituta egon arren jokalariek ez zuten erritmo honekin arazorik izan eta maila polita ikusi ahal izan zen. Bestalde, txapelketaren antolaketa Tolosako Xake Elkartek duela gutxi eskuratutako sistema elektronikoa eta informatikoa berriak erabili ziren eta txandak akatsik gabe bete ziren. Migel Mari Barojak irabazi zuen, bigarren Sabino Etxeberria geratu zen eta hirugarren Jokin Mendia. Jubenil eta infantil onenentzako saria ere egon zen. Jubenil onena Aimar In-txaurren izan zen eta infantil onena Jone Mujika.

Urteko kirolari onena hautatzeko aukera hilaren 8ra arte

ERREDAKZIOA

2008ko kirolari onenaren omenaldia hilaren 16an izango da Leidorren. Aurretik, kirolari onena hautatu behar da, herritarrek hainbat kirolariren artean puntuak emanaz, hilaren 8rako.

Lander Gil atleta, Jon Azpiazu igerilaria, Ana Usabiaga txirrindularia, Joseba Rojo eskiatzailea, Unai Arcelus judoka, Xabi Alonso futbolaria, Tolosa CF atletismo taldea (4x100), Nesken arraun taldea edota Beotibar Zesta Punta taldearen artean hautatu beharko da. Hiru kirolari edo kirol talderi 3 puntu, 2 puntu edo puntu bat eman, eta ondoren, kirolak@tolosakoudala.net helbidera bidali, hala 943697455 telefono zenbakira deitu ahal da.

Argentinako, Espainiako eta Thailandiako istorioak gaur, Titirijain

Titirijai » Elkarren artean oso desberdinak diren emanaldiak izango dira ikusgai, Musika Eskolan, Kasinoan eta Leidorren.

INIGO TERRADILLOS

Thailandia, Espainia eta Argentinaren txanda izango da gaurkoan Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdian. Familia osoarentzat edota helduentzat, ikuskizun desberdinak eskainiko dituzte: estiluzatuagoak Thailandiakoak; ipuin hunkigarria kontatzen duena Espainiako; eta teknika handiaz eta umoreaz baliatuz maitasun istorio ezinezkoa azaltzen duena Argentinako.

Hobby Hut antzerki taldea (Thailandia)

■ **17:30, Kultur Etxea.** *Apsara aingerua* lana eskainiko dute; familia osoari zuzendua, eta hagaxka teknika baliatuz, Vilawan Svetsreniren zuzendaritzapean. 35 minutuko iraupena. Asia Hegoekialdeko Naga izeneko suge mitiko baten eta Apsara izeneko aingeru baten sinemenean oinarritua dago istorioa.

La Canica (Madrid)

■ **18:00, Musika Eskola.** *Yaci y la muñeca de maíz* lana eskainiko dute. Familia osoari zuzendua, mahai teknika erabiliz, 45 minutuko iraupena duen ikuskizuna da, Pablo Vergneren zuzendaritzapean. Brasilgo herrixka batean geratzen da istorioa; Yacei izeneko neska baten gurasoen lan bila besarte herrialde batera doazenean hasten da dena.

El Chonchon (Argentina)

■ **22:30, Kasinoa.** *Juan Romeo y Julieta Maria* lana eskainiko dute. Familia osoari zuzendua, eskularru txotxongiloekin ordubeteko lana da. Shakespearearen *Romeo y Julieta* obra txotxongiloetara eramana. Lan klasikoaren moduan, gizonaren eta emakumearen arteko maitasun ezinezkoa izango da istorioaren ardatza.



Errumaniako Arlechino taldekoen *La pequeña bruja*, atzo Leidorren; Kasinoan herenegun, La Picara Locuelakoak. I. T.



Arlechino taldekoek esanahiez beteriko mezua zabaltzen dute euren ipuinean; La Picara Locuela taldekoek, berriz, umorez beteriko ikuskizuna eskaintzen dute.

Parte-hartzearen garrantzia

Hamar egunetan zehar lurralde askotatik etorritako txotxongilo taldeen lanak daude ikusgai Tolosan. Historia eta kultura hain ezberdineko lurraldeak izaki, eskaintzen dituzten ikuskizunak ere oso bestelakoak dira auren artean. Batzuen umorea dute ardatz, besteak dotorezia, beste batzuek ipuinak duen mezuari ematen diote garrantzia, besteek abileziari... Denetarik aurki daiteke, beraz.

Atzo arratsaldean, esaterako, Errumaniako Arlechino taldekoek *La pequeña bruja* lana eskaini zuten Leidorren ikastetxeetako gaztetxoentzat. Ongia eta gaizkia ardatz dituen ipuina da. Sorgin baten urteroko sorginen akelarrean hartu nahi du parte. Bera oraindik gaztea da, ordea, eta sorgin heldu eta gaiztoek, bertan harrapatzen dutenean, erratza kentzen diote. Akelarrean parte hartu ahal izateko sorgina izaten ikasi behar duela esaten diote, eta hurrengo urtean proba bat egitekotan geratzen dira. Sorgin txikiak urtebete du bere burua prestatzeko, eta egunak ikasten emango ditu. Urtaroak igaroko

dira, eta sorginkeriak burutzen ditu ikasten dihoan heinean. Neguan, bi mutikori lagunduko die neguko izpiritu txarra uxatzen; udaberrian lore saltzaileari lagunduko dio bere eskuan lore politik jarritz; udan, bere zaldia zigortzen zuten gizonari zigorra jarriko dio; udazkenean... Hala, urte osoan zehar ekintza onak burutzen ditu, sorginkerien bidez, eta Akelarre joateko unea iristen da. Han sorgin helduekin biltzen da, eta urte osoan egin duenaren berri ematen du. Hauek sorginkeria ez dela horretarako erabili behar esaten diote, gaizkia egiteko baizik, eta Akelarrean ez diote parte hartzen uzten. Sorgin txikiari ez zaio ongi iruditzen, eta erratza eta sorginkerien liburua kenduko die sorgin helduei, erantzun moduan.

Istorio polita, barneko mezuarrekin, eta maila handiz maneiatzen dituzten titiriteroen lana da. Gaztetxoak ziren atzokoan lan honen ikusleak, eta hori nabari zen, batez ere, parte-hartzea eskatzen zuten uneetan igaro baitzuten ondoen, hau da, abestu eta txalo egin behar zen uneetan.

Barre eragiteko artea

Herenegun, bestelako ikuskizuna izan zen Kasinoan, La Picara Locuela antzerki taldekoen eskutik. Desberdina hauen lan egiteko moduarengatik, eta baita ikuslegoarengatik, helduentzako saioa baitzen. Ikuskizuna hasi zutenetik amaierara arte barrea eragin zuten Gaztela eta Leongo taldekoek unero ikuskizuna gurera ekarritik, eta musikarekin giro polita sortuz.

Errege gaiztoak bufoia behar du alboan, aspertuta dagoelako, eta bufoi zaharren ilobari esaten dio zeregin horretan hasi behar duela. Honek ez du nahi, eta alde egiten du, beraz, erregeak hura hil hala bizirik aurkitzeko agindua emango du. Bufoiaren ilobak berezitasu bat du, aitona emandako maskara jarritz botere berezia eta dibertigarriak hartzen dituela. Bere ihesaldian, txerriak lapurtuko dizkio satlatzaila bati, oso gose baita, eta mutiko ero batek hiltzea saihestuko du. Azkenean, erregeaz gain, heriotza xeble bati ere aurre egingo dio. Istorio guztian, gainera, ikuslegoaren parte-hartzea erabiliko dute artistek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK

NEGOZIO BERRITZAILA ETA KONTRASTATUAREKIN LEITZAKO HEDAPENERAKO

BEREKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN

HARREMANETAN JARRI NAHI DU ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK

Harremanetarako telefonoa: 607219256 / 607 575018



4. mailako ikaslea Amerikaren historia azaltzen. Ikaskideak zutik euren txandaren zain. Entzuleak lurrean eserita. A. I.



4. mailako ikaslea txikienei otsoaren kondaira kontatzen. A. IMAZ



Azalpenak entzun ostean, ikasle txikiak erakusketan zehar zabaldu ziren, gustuko gauzak aurkitu zituztelarik. A. IMAZ



5 urteko bi haur Amerikako musika instrumentuei begira. A. IMAZ

Erletako ikasleak Amerika ezagutzuz

Leitza » Erleta eskolako 4. mailako ikasleek bost urteko haur txikiei Amerikaren inguruko erakusketa erakutsi eta azaldu zieten.

ASIER IMAZ

Erleta eskolako 4. mailako haurrek Amerika kausitu dute ezagutzaren bidetik. Ikasia erakusteko asmoz, azken asteetan, erakusketa zabaldu dute bideo gelan. Bertatik iragan dira ikastetxeko ikasle, irakasle eta 4. mailako haurren gurasoak.

Erakusketa gidatua

Astelehenean erakusketak 5 urteko haurrentzat zabaldu zituen atekak, aurretik hainbat guraso eta ikasle iraganak ziren bideo gelatik.

4. mailako ikasleek 11:15erako jarri zuten hitzordua txikienekin. Hauek ordea, atzerapenez heldu-

ko zirela adierazi zien erakusketaren sortzaileei. Denbora ez galtzeko, irakasleak *Misioa* pelikula jarri zien ikasleei. Aldian aldiari, *pause* botoia sakatu eta filman zer gertatzen ari zen galdetzen zuten. Ameriketako kontuetan adituak direnez, ikasleek Mendoza eta honen lagunak, eliza, espainiarrak eta portugesak bere lekuan kokatu zituzten.

5. urtekoen tropela, euren bi irakaslerekin, 11:30ean entzun zen bideo gelaren kanpoaldean. «Hauek

dira». Bideo proiektzioa gelditu, argiak piztu eta bakoitza bere postuetara. Amerika kausitu zuten ikasleak prest zeuden erakusketa gidatuari hasiera emateko.

Historia, kondairak, indioak...

Txikiak erakusketara sartzean, gelaren erdian eseri zituzten munduko eta Amerikako maparantz begira.

Banaka banaka, 4. mailako ikasleak euren aurrera joaten hasi ziren. Ikasle bakoitzak Amerikari

buruz hitz egiten zuen labur-labur. Batzuk kontinentearen historia azaldu zuten, beste batzuk bertan bizi ziren indigenen berri eskaini zuten, tartean, kondairak, lanabesak, musika tresnak, argazkiak, ... erakutsi zizkien 5. urteko haurrei.

Erakusketaren nondik norakok bikain azaldu ondoren, txikiak aske utzi zituzten bideo gelan, nahi zituzten mahaiaik eta gauzak ikusteko aukera eskainiz, hori bai, «ezer ukitu gabe, mesedez».

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
2008ko Abenduaren 3a.


...EUSKARA, EUSKARA, JALGI HADI MUNDURA.

Atzo UKAN saria,
gaur zilarrezko BIKAIN ziurtagiria.
Euskararen bidetik aurrera goaz.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

Bigarren egin dute Luiaondon izandako sokatira txapelketan

Ibarra » Lander eta Imanol Otermin, Mikel Arsuagak, Igeldoko Jose Mari Urangarekin batera, osatzen duten Auzolan A taldeak bigarren egin zuen asteburuan Arabako Luiaondon izandako Goma Gaineko Euskadiko Lauko Txapelketako finalean. Abadiño Bk irabazi zuen eta hirugarren Baionako taldeak egin zuen.



Pasa den asteburu honetan egin saioetako batean hartutako irudia. HITZA

ERREDAKZIOA

Ibarrako Lander eta Imanol Otermin, Mikel Arsuagak, Igeldoko Jose Mari Urangarekin batera, osatzen duten Auzolan A taldeak bigarren egin zuen asteburuan Arabako Luiaondon izandako Goma Gaineko Euskadiko Lauko Txapelketako finalean. Abadiño Bk irabazi zuen eta hirugarren Baionako taldeak egin zuen.

Lehen biak irabazi zituzten

Bi jardunaldi egin zituzten lehenengo eta biak irabazi zituzten Auzolan A taldekoek, nahiz eta finalean galdu zuten. «Ondo ibili ginen, Mikel, berriena dena ere oso fin ibili zen, baina Abadiño koek oso maila altua dute», esan du Lander Oterminek. Izan ere, aipatu moduan Abadiño B taldeak hartu zuten aurrea 320 kilogramoetan

egindako lehiaketan. Orain 300 kiloetan zerotik hasiko dira berriz ere lehiatzen, hamar talde ariko dira guztira eta sei bakarrik sailkatuko dira. Saio hori Legution izango da, Araban berriz ere, hilaren 13an, eta honakoan ere Ibarrako bi anaia ariko dira Igeldoko Urangarekin batera, baina beharbada Mikel Arsuagaren ordezkari Iruneko beste gazte bat ariko da, pisua arin-

du beharrean baitaude 300 kilogramoetan aritu ahal izateko. Jose Mari Agirre Adunako prestatzailearekin egingo dute lan oraingoan ere, eta egin ohi duten moduan astean hirutan trebatuko dira.

Behin Legution aritu eta gero hurrengo egunean, hilak 14, Nafarroan dute hitzordua, Berriozarren, eta finala, aldiz, hilaren 20an izango da Igeldon.

Berastegi, Leitza eta Bidania zurituta elur denboralea dela eta

Tolosa-Leitza » Arazo ugari sortu zen atzokoan eskualdeko hainbat puntutan: argindar mozketak, istripuak...



Eskualdeko hainbat errepedetan elurra kentzen aritu behar izan ziren. A. IMAZ

ERREDAKZIOA

Eguraldi kaxkarra izan zen atzokoan nagusi; euria, elurra eta hotz galanta. Bidania, Leitza eta Berastegi elurtuta esnatu ziren atzo eta horrek, besteak beste, arazoak sortu zituen errepedetan.

Eguerdian, esate baterako, N-1 errepedean Tolosa parean kamioi bat irauli eta auto ilara luzeak sortu ziren. Irungo noranzkoan jazo zen istripua eta auto ilaren ondorioz beste bi autok ere elkar jo zuten. Aipatu behar da ere kamioiak eskuin karrila oztopatu zuela ordu batzuetan eta kamioiaren gidaria arin zauritu zela. A-15an ere bideetako bat moztu egin behar izan zuten goizean zehar.

Bestalde, Leitza, non astelehen arratsaldean hasi zen elurra egiten, argindarrak gabe egon ziren ordu batzuetan. Lehen argi mozketak 10:30etik 13:00etara iraun zuen. Iberdrolak esan zuenez, Areso sarrerako poste batean izan zen arazo. Ondoren ere argindarrak gabe egon ziren herrian.



Leitza herria zuriturik esnatu zen atzokoan. A. IMAZ

Merkatu Txikia izango da aurten ere

Ibarra » Ekuadorreko Santa Rosa eta Baba herrietara, Indiara eta Hondurasera bidaliko dute merkatu jasotzen duten diru guztia.

ERREDAKZIOA

Ibarratik Mision Taldeak urtero Eguberriak gerturatu ahala antolatzen duten Merkatu Txiki Misionaria abiarazi du. Oraingoz Ibarrako dendari eta herritarrei egin dieite deia, izan ere merkaturik salgai jarri ahal den zerbitzu oparitu nahi dutenei hilaren 9tik 13ra Parrokiko lokaletatik pasatzeko eskatzen dieite, arratsaldean beti ere, 17:00etatik 20:00etara.

«Aurrerantz martxan jartzen»

Jasotako objektu guztiak salduta ateratzen duten dirua Ibarratik Mision Taldeak Ekuadorreko Santa Rosa eta Baba herrietan, Indian eta Hondurasen dituen proiektuetara bideratuko dituzte. «Aurten eskuratu ahal izan ditugun diru, medizina eta pertsonen laguntzak behar dituzte eskertu dizkigute. Horrela

aurrerantz martxan jartzen lagunduz jarraituko dugu», gaineratu dute zentzu honetan.

Horiek horrela, Merkatu Txiki Misionaria hilaren 14an zabalduko dute eta 21era arte egongo da irekita; goizean 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. Urteroko moduan Parrokiko lokaletan jarriko dute azoka, herriko plazaren alboan.

Dirua sartzeko aukera

Era berean, merkaturik ezer erosi nahi ez duenak, baina aipatu lau misioetarako dirua bideratu nahi duenak, badu beste modurik ere; Ibarratik Mision Taldeak Kutxan kontu korronte bat du horretarako: 2101 0043 13 0011656899. Informazio gehiago behar duenarentzat ere bi telefono eskaini dituzte; 678 844 539 eta 678 780 775.

«Mision animadoretza taldearen izenean eta lau misioetako sendien izenean, zuen laguntasun guztia, emaileri eta erosleei, eskertu nahi dizuegu. Horrela egingo baitugu posible bertako laguntasun proiektuak aurrera ateratzea», azaldu dute taldeko kideek.



Agirrezabala, Zeberio II, Iñigo eta Etxeberria III. HITZA

Gaur hasiko da Uhartan Erremonte Bikoteen Txapelketa

Elduain » Zeberio II elduaindarra Agirrezabalarekin ariko da Nafarroako Iñigo eta Etxeberria IIIaren kontra.

ERREDAKZIOA


Gaur hasiko da Nafarroan, Uharteko Euskal Jai Berri frontoian 16:30ean, Erremonte Bikoteen Txapelketa Nagusia. Lehen partidari Zeberio II ariko da. Elduaingo Igor Agirrezabalarekin ariko da Iñigo eta Etxeberria IIIren kontra, eta horrela A taldearen final-laurdeneko ligaxkako lehen parti-

dajokatuko dute. Bikoteentzako da berezibikoa garaipena, izan ere beste partida bakar bat dute aurretik finalurrekoetan parte hartu nahi badute.

Zeberio II-Agirrezabala dira eguneko faboritoak, izan ere Patxi Zeberio bost aldiz izan da bikoteentzako garaile. Agirrezabala gaztearen laguntzak ere mesede egingo die. «Agirrezabalarekin jokatzeko poz handia eman dit, nahiko atzelari ona da: errobotetik oso ondo itzultzen ditu pilotak, kantxaren zati handi bat betetzen du... behar bada agresibitate pixka bat falta du, baina oso lagun ona da», esan du elduaindarrek zentzu honetan.

E Elkarrizketa

JUAN KRUIZ IGERABIDE | Idazlea



I. GARCIA

«Laminak pultsioen bidez jokatzeko duten izakiak dira»

Aduna » 'Amilami. Laminen istorioak' liburua plazaratu du Juan kruz Igerabidek eta bertan, istorio baten bitartez, laminen buruzko herri tradizioa jasotzen du.

IMANOL GARCIA

Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) *Amilami. Laminen istorioak* liburua plazaratu berri du. Elena Odriozolak bere marrazkiekin irudikatu du istorioa. Igerabidek Odriozolari buruz dioenez, «liburuaren aurkezpenean esan nuen lamina bat ekarri nuela eta berak egin zituela marrazkiak». Odriozolak egindako marrazkiak «oso barrutik egindakoak dira», gaineratzen du. «Elenarekin gertatzen zait liburuari zabalpen bat ematen diola, ipuin paralelo bat egiten du marrazkiekin eta izugarri aberasten du irakurketa».

Ez da lehenengo aldiz Odriozolarekin liburua argitaratzen duzuna.

Liburu dezente egin ditugu elkarrekin. Oso ondo uztartzen dira testuak eta marrazkiak. Egia esan haren marrazkiak kategoria handikoak dira. Nik uste badugula zenbait gaietan elkarrekikotasun bat eta kasu honetan bete-betean asmatu dugula.

Helduentzako zein haurrentzako literatura jorratzen duzu. Eskariaren edo sormenaren arabera izaten da hori?

Sormenaren arabera. Batez ere helduentzako lan luzeagoak izaten dira, mantsuago egitekoak. Lanean nabiltenez, oporrak aprobetxatzen ditut arnas luzeko gauzak egiteko. Haurrentzako gauza laburragoak direnez, maizago aritzen naiz. Haur literaturaren arloan tarteka enkarguak ere izaten dira.

Liburua enkarguz izan da?

Dona Dona sailean dezente kolaboratu dut, bai idazten eta bai ideiak ematen. Liburu hau nik proposatutako ideia bat zen, aspaldidanik nembilelako laminen kontuekin. Barandiaranen materiala aztertuta nuen eta gero beste ba-

ztuetatik ere bildu ditut gauzak. Ahozko tradizioa urtetan aztertzen joan naiz, baina batez ere arlo hau kuttuna da niretzat. Hasieran pentsatu nuen tradizioko gauzak bere horretan ateratzea, baina zati pila bat topatu nituen oso laburrak zirenak. Horiakin azkenean erabaki nuen narrazio bategingo nuela eta nik asmatuko nuen ipuin luze horretan agertuko zirela laminen ohiturak, laminen nolako izaera duten, bai gorputza bai izaerarikoa... Horiakin sartu ditut istorio horren bidez.

Laminen tradizioa nolabait jaso duzu, beraz.

Laminen buruzko tradizioa aurkezteko modu bat izan da, istorio baten bidez. Liburuko laminak haur batzuk zaintzen ditu eta horiei istorioak, poemak, esaera zaharrak kontatzen dizkie eta istorio horietako askok narrazioa pixka bat eten egiten zuten eta atzean jarri ditut, orrialdean ohar bat jarri, nahi duenak jarraian irakurri edo geroago uzteko.

Eta Amilami izena nondik hartu duzu?

Laminen artean lamina berezi bat hartu nuen. Amilaminak oro har onberak dira eta Arrizalako dolmenarekin zerikusia duena hartu nuen. Laminek azal lur kolorekoa dute, baina honek txuria du, amak ilargiaren esnea ematen diolako egunero. Gainera, nerabezarora iristean esnea ematen hasten da bularretatik eta hortik etortzen zaio arazoa.

Nola egituratu duzu liburua?

Hiru zati handi ditu. Aurrena lamina non bizi zen azaltzen duena. Gero lamina hiri batera joaten da, laminen denboratik gaurko errealliteria eta gero bukeran korapiloa askatzen da. Zati bakoitzean kapitulu laburrak daude, nahi izanez gero zatika irakurtzeko haurri.

Zer adinetarako da? Helduentzako ere interesgarria dirudi.

Helduek laminei buruzko tradizio orokorra topa dezakete hemen. Gero ere badaude herri tradizioko piezatxoak: sehaska kantak, behatzekin egiteko jolasak... Gurasoentzat baliagarriak izan daitezkeenak haur txikiak erabiltzeko. Haurrak bakarrik irakurtzeko zortzi-bederatzi urtetik aurrera egin dezakete. Jolas liburutzat har daiteke eta gero nobela luze bezala, baina haurrek erraz irensteko modukoa. Horren aspian ikerketa lan bat dago, gure tradizioaren azterketa, istorio baten barruan eskaintzen dena berpiztuta.

Zer erakartzen dizu laminak pertsonai mitologiko bezala?

Greziaren tradizioan dagoeneko azaltzen dira. Uretako ninfen familia simbolikokoak dira. Euskal Herrian garapen handia izan du, urarekin lotuak daudelako: iturri, putzu... Laminek emozioen eta inkontzientearen mundua sinbolizatzen dute. Ilea etengabe orrazten aritze hori buruan nolabait inkontzienteratu sartuko bagina bezala da, ezagutzen ez dugun material horretara sartzea. Gainera, laminen jokatzeko dute inkontzientek jokatzeko duen bezala: zuk gauzak arrazoitzen dituzu eta inkontzientek pultsioen bidez eginarazi egiten dizkizu gauzak. Laminak pultsioen bidez jokatzeko dute izakiak dira. Alde hortatik izugarri interesatzen zitezakidan, zeren herri tradizioak oso ondo erakutsi du zer den inkontzientea, Freud-ek baino lehenago.

Euskarazko Produktuen Katagoloa Iruran eta Anoetan banatu dute

ERREDAKZIOA

Euskarazko Produktuen Katalogoaren ale bana Irurako eta Anoetako guraso guztien etxeetan edukitzea izan da bi herrietako udalen nahia eta horregatik egin dute banaketa berezia. UEMAREN laguntzarekin lortu ohi dituzte udalek katalogoak. Katalogo horretan euskaraz argitaratzen diren produktu berrienak eta haien inguruko informazioa daude bilduta, etxeko haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko edo gozatzeko aukera izan dezaten.

Liburuxkak zortzi atal ditu: musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, gurasoentzat, informatika eta jostailu eta jokoak. Gainera, zenbait ataletan, zehaztuta dago opari bakoitza zer adin tartetarako den egokia. Katalogo paperean izateaz gain, Interneten ere begira daiteke www.katalogoa.org helbidetan.

Laburrak

Gaur, hitzaldia, eta bihar gaztain-jatea Alkartasunan

ANOETA • Alkartasuna biltokian gaur hitzaldia izango dute, 18:00etan, Kutxak antolatuta. *Elkar komunikatzen ikasi eta gainera-koekin dugun harremanak hobetzea* du izenburutzat hitzaldiak eta Silvia Caminok emango du. Bestalde, bihar, 19:00etan elkartzeko dira biltokiko kideak gaztain-jatea egiteko.

Ohiko bilkura egingo dute bihar udaletxean, 19:30ean

ANOETA • Anoetako Udal Plenoak ohiko bilkura egingo du, bihar, 19:30ean, udaletxean. Besteak beste, hainbat mozio aztertuko dituzte bertan eta herriko kiroldegiarren kudeaketa ere hizpide izango da bilkuran.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95

ANA GALDOS ETXEZARRETA

(LABeko ordezkaria Oreretako udaletxean)

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak. Adiorik ez, gero arte.



ERRETERIA-ORERETA
2008ko abenduaren 3a

Oarso-Bidasoako LABeko idazkaritza

MARIA ISABEL BELOKI IRAOLA

Eli Amiama irakaslearen ama



Altxoko Imaz bertsolaria eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak.

ALTZON
2008ko abenduaren 3a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Titirijai 2008 txotxongilo jaialdia, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta. Eguneroko emanaldiak herriko kultur gunetan.
■ **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren

13an, BECen antolatuta duen ekitaldira autobusak antolatuta ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideak, 8 euro).

■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite Amonarriz kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.
■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren 5etik 8ra izango da Zer-

kausian. Afariak 5etik 7ra eta bazkariak 6an, 7an eta 8an. Erreserbak (40 euro) 943 697413 telefonoz zenbakian edo tour@tolosaldea.net helbidean.

■ **Tolosaldea.** Ikaztegieta, Alegiako, Tolosa eta Asteasu udalek ekitaldi ugari antolatuta dituzte gaurkorako. Halaber, eskualdeko ikastetxe gehienek ere osatu dute euren egitaraua.

■ **Zizurkil.** Itsasmenetikoi Fraisorok lorezain, lorezaintzako teknikari eta lorezaintzako heziketa zikloetako ikasleentzat ikastaroa antolatu du.

teko jaialdiko erakusketa, *Errusiarrako leihoa* ikusgai Aranburu Jauregian.

■ **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako aurkeztu dituzten lanen erakusketa Abraham Olano kiroledegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Iruztun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Maria Ansa Peña (Anoeta).
Gaur 3 urte. Muxu handi bat gure sorginari, etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Zorionak!

Ibarrako maratoizaleak!! Zorionak!!



txokoa h

Titirijai 2008ren baitan, honako saio hauetarako **sarrera pare bana** zozketatu ditugu, hauexek irabazleak:

Abenduak 6 larunbata • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **EUGENIO NAVARRO irabazlea:** Mari Jose Amonarraiz Galdos (Tolosa)

Abenduak 6 larunbata • 19:00tan Tolosako Leidorren: **TEATRO DE LA LUNA irabazlea:** Jose Zubeldia Irazusta (Tolosa)

Abenduak 7 igandea • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **LA PICARA LOCUELA irabazlea:** Edurne Zabala Artano (Tolosa)

Abenduak 7 igandea • 19:00tan Tolosako Leidorren: **BUHO MARAVILLAS irabazlea:** Pakita Etxeberria Señorena (Ibarra)

Abenduak 8 astelehena • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **TITERES DE SAN PETERSBURGO irabazlea:** Martxel Sagastume Agirre (Alegia)

Abenduak 8 astelehena • 19:00tan Tolosako Leidorren: **COMPañIA DEL PRINCEP TOTILAU irabazlea:** Migel Angel Mendieta Olaskoaga (Altzo)

HITZaren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak Leidorreko leihatilan izango dituzue.

